

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

5849

EBAZPENA, 2011ko azaroaren 18koa, Kultura Ondarearen zuzendariarena, Euskadiko Artxiboen Lege Proiektuaren entzunaldi-izapideak egiteko eta proiektua jendaurrean jartzeko dena.

Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 8.1 artikulua xedatzen duenez, «Herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorre entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean jarri beharko dira».

Aipaturiko lege-proiektuaren onarpenak herri-administrazioei eragingo die nagusiki, dokumentu publikoak eta horiek administratzeko sistemak arautuko dituen neurrian, baina eragina izango du, baita ere, partikularrengan, dokumentu-ondareaz eta dokumentaziorako sarbidez diharduelako.

Proiektua lantzeko prozesuan ALDEE-Euskadiko Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Elkarteak parte hartu du, alegia, eragindako herritarrak ordezkatzeko dituen elkarteak, lege-arau horren helburuari estu-estu loturiko xedeak dituenak. Hori dela eta, berez, ez litzateke beharrezkoa izango entzunaldiaren izapidea, Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 8.3 artikularen argitan; baina, guztiarekin ere, komenigarritzat jo da, proiektua idatzi zuen lantaldea larri samar ibili zelako denbora aldetik bere lana egiteko.

Bestalde, legeak dokumentu-ondarearen titularrek dituzten eskubide-betebeharrak arautzen dituzenez gero, bai eta partikularrek artxibo publikoetan sarbidea izateko eskubidea ere, komenigarria da araua jendaurrean jartzeko izapidea betetzea.

Hori dela eta, hauxe

EBATZI DUT:

1.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasi eta hogeita egun baliouduneko epe batez, entzunaldia egitea eta jendaurrean jartzea Euskadiko Artxiboen Lege Proiektua, hau da, dokumentu publikoak, horiek administratzeko sistemak eta artxiboak arautzen dituen Legea, bai eta Euskadiko Artxibo Sistema, Artxibo Historiko Nazionala eta Administrazio Orokorren Artxibo Sistema eta, halaber, dokumentu-ondarearekin eta dokumentazioaren sarbiderako eskubidearekin loturiko alorrak arautzen dituenak.

2.– Bidezko interesa duten pertsona fisiko eta juridikoek, publiko edo pribatuek, Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren egoitzan (Donostia kalea 1, 01010 PK, Gasteiz; tel.: 945 01 94 70) kontsultatu ahal izango dute Euskadiko Artxiboen Lege Proiektuaren espedientea, eta egokitzen jotako alegazio, dokumentu eta egiaztatgiriak aurkeztu ahal izango dituzte epe horretan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 18a.

Kultura Ondarearen zuzendaria,
JOSÉ LUIS IPARRAGUIRRE MÚGICA.